


12 INSTAGRAM

- o—80 12.1 ZER DA INSTAGRAM?
- o—80 12.2 KONFIGURAZIOA ETA ESKAERAK



INSTAGRAM



12.1 Zer da Instagram?

Instagram gizarte sare mugikor bat da, argazkiak eta 15 segundo bitarteko bideoak argitaratzeko balio duena. Iragazkiak aplika dakizkioke, eta, ondoren, beste gizarte sare batzuetan (Facebook, Twitter, Flickr edo Tumblr) parteka daitezke.

12.2 Konfigurazioa eta eskaerak

Soilik telefono mugikorretatik erabil daitekeen aplikazio bat denez, dagokion ikastegiak, sailak edo zerbitzuak sortu eta konfiguratuko du kontua, gida honetan ezarritako irizpideak eta UPV/EHUren branding-a errespetatuz, bai kontuari izena jartzeko bai irudi korporatiboa erabiltzeko.

Halaber, Instagram-en kontu bat sortu dela jakinaraziko zaio Komunikazio Bulegoari, Unibertsitatearen gizarte sareen gordailuan barne hartzeko.

Komeni da #upvehu #ehu #campusehu bezalako etiketak erabiltzea gizarte sare honetako argazkiak eta bideoak behar bezala identifikatzeko.